AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

5281

EBAZPENA, 2013ko urriaren 28koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariarena, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Langileria Kudeatzeko zuzendariaren 2011ko uztailaren 18ko Ebazpena, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2010eko abenduaren 17ko Aginduaren bidez deitutako hautaketa-prozeduraren lehiaketa-aldian izangaiek lortutako behin betiko puntuazioak argitara eman zituena, eta zuzendari beraren 2011ko abuztuaren 4ko Ebazpena, aipatutako hautaketa-prozesuan hautatutako behin betiko zerrendak argitara eman zituena, aldatzen dituena, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak jarritako administrazioarekiko 789/2012 auzi-errekurtsoan Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salak emandako epaia betez.

Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salak, 2013ko uztailaren 17ko epaiaren bidez, aintzat hartu du Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak jarritako kaltegarritasun-demanda, eta ondorengo ebazpenak zuzenbidearekiko kontrakoak direla ziurtatzen du: Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko 2011ko uztailaren 18ko Ebazpena, lehiaketa-aldian izangaiek lortutako behin betiko puntuazioak argitara eman zituena, eta 2011ko abuztuaren 4ko Ebazpena, hautatutako behin betiko zerrendak argitara eman zituena, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2010eko abenduaren 17ko Aginduaren bidez deitutako hautaketa-prozeduran; hau guztia, lehiaketa-aldian esleitutako puntuazioari dagokio, eta hautatuak bezala, Udal Haur Hezkuntzan emandako zerbitzuak eta aldez aurreko irakasle-esperientzian zenbatuta, Virginia Yoller Elburgo andreari (7 urte eta 15 hilabete), M. Ione Aspiazu Mendizabal andreari (11 urte eta 8 hilabete), eta Ana Elena Kernstock Odriozola andreari (5 urte); zerbitzu guzti hauek kendu behar zaie, eta hiru kaltedunei, bakoitzari, esleitu dagokion puntuazioa, deialdiaren oinarrien I. eranskineko I.2 atalean esleitutako puntuazioa kendu ondoren, hautatuen zerrendan izan daitekeen ondorioekin.

Aipatutako puntuazioa kendu ondoren, kaltedun bakoitzari ondorengo puntuazioa dagokio lehiaketa-aldian eta hautatutako zerrendan:

Virginia Yoller Elburgo andreari 0 puntu dagokio lehiaketa-aldiko I.2 atalean, eta 8,0380 guztizko puntuazioa aldi horretan. Puntuazio horri oposizio-aldian lortu duena, 8,7385 puntukoa, eta dagokion ponderazioak egin ondoren, aipatutako hautaketa-prozesuan Virginia Yoller Elburgo andrearen guztizko puntuazioa 8,4583koa da.

M. Ione Aspiazu Mendizabal andreari 0 puntu dagokio lehiaketa-aldiko I.2 atalean eta 7,1130 guztizko puntuazioa aldi horretan. Puntuazio horri oposizio-aldian lortu duena, 6,5673 puntukoa, eta dagokion ponderazioak egin ondoren, aipatutako hautaketa-prozesuan M. Ione Aspiazu Mendizabal andrearen guztizko puntuazioa 6,7856koa da.

Ana Elena Kernstock Odriozola andreari 0 puntu dagokio lehiaketa-aldiko I.2 atalean eta 3,8920 guztizko puntuazioa aldi horretan. Puntuazio horri oposizio-aldian lortu duena, 6,1981 puntukoa, eta dagokion ponderazioak egin ondoren, aipatutako hautaketa-prozesuan Ana Elena Kernstock Odriozola andrearen guztizko puntuazioa 5,2757koa da.

Horren ondorioz, Virginia Yoller Elburgo andrearen eta M. Ione Aspiazu Mendizabal andrearen posizioa aldatzen da irakasleen kidegoetara sartzeko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2010eko abenduaren 17ko Aginduaren bidez deitutako hautaketa-prozedura gainditu zituzten izangaien behin betiko zerrendan, Maisu-maistren kidegoko Haur Hezkuntza espezialitatean, txanda librean; aipatutako zerrendan postuak jaisten dituzte.

Bestaldetik, Ana Elena Kernstock Odriozola andrea hautatutako izangaien zerrendatik kanpo geratzen da; izangai hori 436 postuan geratzen da, txanda librean, eta Haur Hezkuntzako espezialitateko txanda horretan guztira 390 postu bete ziren.

Horregatik, aipatutako epaian xedatutakoa betez, honako hau,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Aldatzea Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren Langileria Kudeatzeko zuzendariaren 2011ko uztailaren 18ko Ebazpena, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2010eko abenduaren 17ko Aginduaren bidez deitutako hautaketa-prozeduraren lehiaketa-aldian izangaiek lortutako behin betiko puntuazioak argitara eman zituena. Udal Haur Hezkuntzetako Eskoletan emandako zerbitzuengatik esleitutako puntuazioa kendu eta gero, Virginia Yoller Elburgo andreari, M. Ione Aspiazu Mendizabal andreari eta Ana Elena Kernstock Odriozola andreari dagokien puntuazioa honako hau da:

Virginia Yoller Elburgo andrea: 0 puntu I.2 atalean eta 8,0380 puntu lehiaketa-aldian.

M. Ione Aspiazu Mendizabal andrea: 0 puntu I.2 atalean eta 7,1130 puntu lehiaketa-aldian.

Ana Elena Kernstock Odriozola andrea: 0 puntu I.2 atalean eta 3,8920 puntu lehiaketa-aldian.

Bigarrena.– Aldatzea Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren Langileria Kudeatzeko zuzendariaren 2011ko abuztuaren 4ko Ebazpena, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2010eko abenduaren 17ko Aginduaren bidez deitutako hautaketa-prozeduran hautatutako behin betiko zerrendak argitara eman zituena. Horrela, behin oposizio-aldian eta lehiaketa-aldian (ebazpenaren lehenengo atalean adierazten denaren arabera) lortutako puntuazioa batu ondoren, honela geratzen da:

Virginia Yoller Elburgo andreak Maisu-maistren Kidegoan hautatutako izangai gisa, Haur Hezkuntza espezialitatean, txanda librean, 2. hizkuntza-eskakizunarekin 8,4583 puntuazioa lortzen du.

M. Ione Aspiazu Mendizabal andreak Maisu-maistren Kidegoan hautatutako izangai gisa, Haur Hezkuntza espezialitatean, txanda librean, 2. hizkuntza-eskakizunarekin eta 6,7856 puntuazioa lortzen du.

Ana Elena Kernstock Odriozola andreak Maisu-maistren Kidegoko Haur Hezkuntza espezialitatean, txanda librean, 5,2757 puntuazioa lortzen du. Hautatutako izangaien behin betiko zerrendatik kanpo geratzen da.

Hirugarrena.– Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salak du epaia gauzatzeko tramiteetan gerta daitekeen edozein gai ebazteko eskuduntza, hala xedatuta baitago Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 103.1. eta 109. artikuluetan.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko urriaren 28a.

Langileak Kudeatzeko zuzendaria,
KONRADO MUGERTZA URKIDI.